



Osakidetza

GASTEIZKO  
ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE - ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA  
DE VITORIA - GASTEIZ



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

***BULARREKO MINBIZIAREN ONDOREN  
BIZIRAUTEA LORTU DUTEN EMAKUMEEK  
DITUZTEN BEHARREN AZTERKETA***

*Literaturaren errebisio kritikoa*

*Gradu amaierako lana*

Egilea: Elene Sarachaga Aspizua

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate-Eskola

Data: 2022ko apirilaren 25a

Hitz kopurua: 6865

## ESKERRAK

Familia eta lagunei, emandako sostenguarengatik.

Eta bereziki, Ainhoari,  
prozesu honetan zehar beti laguntzeko prest egoteagatik, plazer bat izan da.

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| <b>SARRERA</b> .....   | 4  |
| <b>ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA</b> .....                                | 5  |
| <b>LANAREN HELBURU OROKORRA</b> .....  | 9  |
| <b>METODOLOGIA</b> .....   | 10 |
| Diseinu mota.....  | 10 |
| Bilaketa prozesua .....  | 10 |
| Barneratze eta kanporatze irizpideak.....  | 10 |
| Artikuluen Aukeraketa .....  | 11 |
| Artikuluen Analisia.....   | 11 |
| <b>EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b> .....  | 12 |
| <b>ONDORIOAK, PRAKTIKARAKO INPLIKAZIOAK ETA MUGAK</b> .....                        | 25 |
| <b>ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....   | 27 |
| <b>1.ERANSKINA: KONTZEPTU TAULA</b> .....  | 31 |
| <b>2.ERANSKINA: BILAKETA TAULA</b> .....   | 32 |
| <b>3.ERANSKINA: FLUXU DIAGRAMA</b> .....   | 39 |
| <b>4. ERANSKINA: ARTIKULUEN IRAKURKETA KRITIKOA</b> .....                          | 40 |
| 4.1. Ikerketa kuantitatibo baten irakurketa kritiko garatua.....                   | 40 |
| 4.2 Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikoaren laburpen taula ..... | 42 |
| 4.3 Ikerketa kualitatiboko azterketen irakurketa kritikoaren laburpen taula .....  | 45 |
| <b>5. ERANSKINA: EMAITZETARAKO ARTIKULUEN LABURPEN TAULAK</b> .....                | 48 |
| <b>6.ERANSKINA: ZUHAITZ KATEGORIALA</b> .....                                      | 56 |

## SARRERA

**Esparru kontzeptuala eta justifikazioa:** Munduan bularreko minbizia diagnostikatzen zaien gero eta emakume gehiago badaude ere, denborarekin heriotza tasa asko jaisten ari da, minbizia honen batz besteko biziraupena urtez-urte handituz. Tratamendua bukatu osteko etapa honetan dauden emakumeek lehen zeukaten sostengu askoz ere txikiagoarekin “normaltasun berriari” aurre egin behar diote, etapa honetako berezkoak diren erronkak kudeatzeko behar ugari azalera dituztelarik. Gaur egun bularreko minbiziari aurre egin dioten emakumeak tratamenduaren osteko faseetan laguntzeko irizpide homogeenok ezartzen dituzten jarraipen gidak dauden arren, hauek batez ere berreritzea ekiditera mugatzen dira, oraindik ez baitaude adostuta paziente hauen beharrak asetzeko gomendio amankomunak. Hortaz, jarraipen plan hauek osatu ahal izateko eta fase honetan dauden pazienteen bizi kalitatea hobetzeko, funtsezkoa ikusten da erizaintzaren aldetik emakumeen beharrak analizatzea.

**Helburua:** Bularreko minbiziaren ondoren bizirautea lortu duten emakumeek dituzten beharrak aztertzea.

**Metodologia:** Literaturaren errebisio kritikoa burutu da, hurrengo datu baseak kontsultatuz: *Medline, Cinahl, PsycINFO, Cuiden, Cochrane, Embase, Lilacs*. Halaber, eskuzko bilaketa ere burutu da aldizkari desberdinetan (*Journal of Cancer Survivorship, European Journal of Cancer Care, European Journal of Oncology Nursing, Breast Cancer*) eta ebidentzian oinarritutako baliabideetan (*RNAO, NICE, JBI*). Horrela, ezarritako barneratze irizpideak betetzen dituzten 16 artikulua eskuratu dira. Barneratze irizpide horien artean *argitalpen data* (2011-2021), *hizkuntza* (ingelese edo gaztelera), *artikulu mota* (kuantitatibo, kualitatibo, literatura errebisioak, errebisio sistematikoak, metanalisiak, praktika klinikorako gidak), *helburua* (helburura egokitzen direnak), *eskuragarritasuna* (full-text eran daudenak), *populazioa* (18 urtetik gorako emakumeak, biziraupen fase hedatu edo iraunkorrean daudenak), eta *kultura edo geografia* (munduko edozein lurraldean publikaturikoak) aurkitzen direlarik.

**Emaitzak eta eztabaida:** Arlo desberdinetan dituzte beharrak emakumeek. *Arlo fisikoan* mina, nekea, linfedema, neuropatia periferikoa, pisu igoera eta funtzionaltasun galerarekin erlazioaturiko beharrak gaineztu dira; *arlo psikosozialean*, berreritzearen beldurra, antsietate, gorputz irudi, sexualitate, harreman aldaketa eta emozioen kudeaketarekin erlazioaturikoak; *arlo ekonomikoan* lanera bueltatzearekin eta finantziario mugekin erlazioaturikoak; *arlo espiritualean* hazkuntza pertsonalarekin eta fedearrekin erlazioaturikoak; eta *arretaren arloan* informazio eta koordinazioarekin erlazioaturikoak.

**Ondorioak eta inplikazioak:** Emakumeek eta haien familia kideek arlo desberdinetan sostengua, laguntza, koordinazioa, baliabideak eta informazioa behar dituzte. Funtsezkoa da osasun profesionalak, hauen barnean erizainek, etapa honetan ematen diren erronkak ezagutzea, eta horiek artatzeko beharrezko gaitasunak eskuratzea, ondoren eguneroko praktikan emakumei behar duten arreta eskaintzeko. Honetarako, garrantzizkoa da arlo honetan ikerketa egiten jarraitzea.

## ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Bularreko minbizia bularreko epitelio glandularreko zelulen proliferazio azeleratu eta kontrolik gabekoan datza. Konkretuki, gaixotasun honetan, minbizia mota guztietan gertatzen den bezala, minbizi zelulek beren ugaltzeko gaitasuna handituta dute, eta, horregatik, pixkanaka zelula osasuntsuak ordeztzen dituzte bular aldean. Modu honetan, bularreko zelula minbizidunak odol edo linfaren bitartez gorputzeko beste atal batzuetara diseminatu daitezke, gertu edo distantziara dauden ehunak inbadituz, eta metastasiak sortuz<sup>1</sup>.

Bularreko anatomia kontuan hartuta, *Munduko Osasun Erakundeak* (MOE)<sup>2</sup> eta “*Centro para el Control y la Prevención de enfermedades* (CDC)”<sup>3</sup>-k egiten duten sailkapenari jarraiki, minbizidun bihurtzen diren zelulen kokalekuaren arabera, bi bular minbizia mota nagusi aurkitu daitezke:

- **Kartzinoma lobularra** (%15): Minbizia zelulek bularreko lobuluxketan dute jatorria, (esnea sortzen duten guruinetan). Zelula horiek eratutako tokian geratu daitezke, minbiziak “*kartzinoma lobular in situ*” izena hartuz, edo hurbileko bular-ehunetara eta gorputzeko beste atal batzuetara barreiatu daitezke, minbizia “*Kartzinoma lobular inbasibo*” deituz.
- **Kartzinoma dukuala** (%85): Minbizia zelulek bularreko konduktuetan dute jatorria (lobuluxketatik titiburura esnea eramaten duten hodixketan). Kartzinoma dukal gehienak modu “ez inbasibo” batean hasten direla uste da, “*Kartzinoma dukal in situ*” izena hartuz, baina, denborarekin, minbizidun zelulak “inbasibo” bihurtu daitezke, minbizia “*kartzinoma dukal inbasibo*” deituz, eta gorputzeko beste ataletara barreiatzeko gaitasuna bereganatuz.

Kontuan hartu behar da gaur egun mundu mailan bularreko minbizia intzidentzia handiena duen minbizia mota dela<sup>4</sup>. Hain zuzen, 2020an munduan diagnostikatu ziren 19,3 milioi minbizia kasu berrietatik, 2,26 milioi bularreko minbizikoak izan ziren (%11,7)<sup>4</sup>. Oro har, Espainian, urte berean 34.088 bularreko minbizia kasu diagnostikatu ziren<sup>5</sup>, eta Euskal Autonomia Erkidegoan 2015ean egindako azken ikerketen arabera 1.679 kasu egon ziren<sup>6</sup>. Gainera, “*International Agency for Research on Cancer*”-en (IARC) ikerketek 2040 urterako minbizia honen intzidentzia heren bat baino gehiago handituko dela aurreikusten dute, hain zuzen ere, urtero munduan 3 milioi kasu baino gehiago diagnostikatuko direla<sup>7</sup>.

Hortaz, aurreko datuak kontuan hartuta, bularreko minbiziaren intzidentzia handia dela, eta denborarekin handitzen ari dela ondorioztatzen da, baina, halaber, intzidentzia igotzen den heinean, detekzio goiztar eta tratamendu aukeren hobekuntzen ondorioz<sup>8</sup>, minbizia honi aurre egiten dioten gero eta pertsona gehiago daude, bularreko minbiziaren biziraupena handitzen ari baita, 5 urterako batz besteko prebalentzia %90ekoa izanik<sup>9</sup>.

Baina, oro har, bereizketa bat egin behar da bi sexuen artean, izan ere, diagnostikatzen diren bularreko minbizi kasu guztien %1 baino gutxiago gizonezkoei dagozkie. Gainera, heriotza tasan, desberdintasunak daude emakume eta gizonezkoen artean, gizonezkoek hiltzeko probabilitate handiagoa dutela egiaztatuta baitago. Hortaz, bi sexuen bereizketari dagokienez, ez da bakarrik emakumezkoengan minbizia honen intzidentzia handiagoa dela, baizik eta, azken hauek biziraupen aukera gehiago ere dituztela<sup>10,11</sup>.

Biziraupenaren kontzeptuari helduz, Fitzhugh Mullan<sup>12</sup> mediku Estatu Batuarra aipatu behar da, bera izan baitzen, minbizia bati aurre egin ondoren, lehenengo aldiz “biziraupena” definitu zuena, eta gaur egun, “*National Cancer Institute*” (NCI)<sup>13</sup> bere definizioan oinarritzen da kontzeptua azaltzeko. Zehazki, honen aburuz, minbiziaren biziraupenak diagnostiko momentutik bizitzaren amaiera arte dauden arazo fisiko, psikiko, sozial eta ekonomikoak barne hartzen ditu. Gainera, biziraupena asistentzia mediko, jarraipen eta bizitza kalitatearekin lotuta dagoela onartzen da, eta inguru soziala biziraupenaren esperientziaren parte ere dela ulertzen da. Modu honetan, biziraupen osoan zehar hiru fase desberdintzen dira, Mullan-ek berak aipatutakoak, eta gaur egun “*Sociedad Española de Oncología Médica*”-k (SEOM)<sup>14</sup> honela definitutakoak:

- Biziraupen akutua: Diagnostiko momentuan du hasiera, eta tratamenduaren bukaera arte hedatzen da, hortaz froga mediku eta tratamendu guztiak barne hartzen ditu.
- Biziraupen hedatua: Minbiziaren erremisioarekin eta lehenengo mailako tratamenduaren bukaerarekin hasten da.
- Biziraupen iraunkorra: Fase hau “sendaketarekin” identifikatzen dena da, edo eta erremisioaren osteko luzaroko biziraupenarekin.

Gauzak horrela, biziraupenaren edozein fasean egonda ere, minbiziak pertsonengan eragiten duen inpaktua ulertu behar da: minbiziarekin bizitzea “ezezaguntasunarekin” bizitzea bezala ere definitu da, bat-batean pazientearen bizitzan aldaketa erraldoia inplikatzeko duen esperientzia gizatiarra bezala, zeinetan bai paziente berak eta baita familiak ere, gaitasun berriak garatu, informazio berria ulertu, eta egunerokotasuneko aldaketetara ohitu behar diren. Halaber, “minbizia” hitza bera, konnotazio handiko kontzeptua da, orokorrean burura heriotza dakarrena; Mullan-en arabera, pertsona, minbizia pairatzerakoan era kontziente batean “hilkor” dela konturatzen da, etorkizun baterako zituen plan eta itxaropen guztiak kolokan jartzen dira, eta, pazienteak bizitza berarekin eta hilkortasunarekin aurrez-aurre jartzen du gaixotasunak<sup>12</sup>.

Modu honetan, minbizia pairatzen duen pazienteak “bidai” luze bat egiten du biziraupen fasean zehar: lehenik eta behin minbizia daukala entzun beharko du, ondoren tratamendu desberdinak jasan beharko ditu, eta azkenik tratamendua osatuko du<sup>15</sup>. Baina, nahiz eta behin tratamendua bukatuta erronka guztiak amaitu direla pentsatzen den, minbiziaren bidaiaren azkenengo fase garrantzitsua datorkio pazeienteari: “*normaltasun berria aurkitzearena*”. Orain minbizia baino lehenago zeukan bizitzara bueltatu behar du, baina arestian aipatu den guztiarengatik hura ulertzeko modua aldatu zaio: haren bizitzak aldaketa handiak izan ditu, horietako batzuk luzaroko mantendu daitezkeenak, edo eta betirako haren parte bihurtu daitezkeenak<sup>15</sup>.

Zehazki, behin tratamendu fasea bukatuta, pazeienteak jasotzen duen sostengua asko murrizten da aurreko fasearekin alderatuz; tumorea bera desagerrarazten lagundu duten tratamenduen ondoriozko sintoma fisikoak ugariak dira biziraupen *fase hedatuan*, eta nahiz eta hauek *biziraupen akutuan* (diagnostiko eta tratamenduan) ere agerian zeuden, fase honetan pertsona bakoitzak bere kabuz kudeatu behar ditu bere etxean, komunitatean edo eta lan eremuan. Gainera, aipatutako “bidai” luze honek emozionalki eta psikologikoki azterna bat uzten du, *biziraupen iraunkorrean* islatuko dena, pazeienteak bere aurreko bizitzarekin jarraitu behar duenean<sup>12</sup>. Oro har, “osasanaren” eta bizitza beraren esanahia aldatu egiten da minbizia bat pairatu ondoren, eta horregatik pazeienteek haien lehentasunak birplanteatu ditzakete, askorentzat bizitzaren zentzua bera ere aldatuz<sup>16</sup>.

Hortaz, aldaketa handiak ematen dira biziraupen hedatu eta iraunkorrean barrena, tratamendu fasea bukatzerakoan “*paziente*” bezala sentituzetik, “*bizirautea lortu duen pertsona*” izaterainoko pausoa ematen baita, eta nahiz eta poztasun handiko momentua izan, ikusi den bezala, trantsizio erraldoiko unea da, mota askotako erronkak dakarzkiena<sup>16,17</sup>.

Erronka horien artean, aipatutako sintoma eta arazo fisikoei aurre egitea dago, minbizia zelulekin akabatzeko erabilitako tratamendu desberdinek ondorio sistemikoak eta bigarren mailako efektuak baitituzte, horietako asko luzaroko edo eta betirako mantendu daitezkeenak. Oro har, minbizia mota hau tratatzeko askotan erabiltzen diren tratamenduak kardiotoxikoak izan daitezke, eta luzaroko gaixotasun kardiobaskularrak jasateko arriskuarekin erlazionatzen dira<sup>18</sup>. Bestalde, tratamendu askok neuropatia periferikoa eragin dezakete, zeinek muga handiak eragin ditzakeen pazeienteen bizitzan<sup>19</sup>. Era berean, ugaltze aparatuan egon daitezkeen albo-ondorioak handiak dira: sarritan erabiltzen diren tratamendu askok antzutasun arriskua handitzen dute ugaltzeko adinean dauden emakumeengan, obozitoetan kimioterapikoek eragin dezaketen kaltearengatik. Gainera, tratamendu askok emakumeen obulutegian duten eraginaren ondorioz, amenorrea, menopausia

edo premenopausia eragin dezakete, honek dakartzan sintoma eta bigarren mailako ondorio guztiekin<sup>20,21</sup>. Bestalde, erradiazioa edo tratamendu kirurgikoa jaso duten emakumeek haien biziraupen osoan zehar linfedema garatzeko arriskua daukate, eta honek fisikoki eragin dezakeen muga handia izan daiteke<sup>22</sup>. Era berean, egiaztatu da zenbait tratamenduk, estrogeno mailak jaistean, efektu negatiboa izan dezaketela hezurretan, horrek osteoporosia pairatzeko arriskua handiagotuz<sup>23</sup>, eta, halaber, etapa honetan gainezten den beste sintoma fokal garrantzitsua mina dela ere egiaztatu da<sup>24</sup>.

Erronka fisikoei ez ezik, erronka psikologiko eta sozial ugari ere aurre egin behar diete emakumeek, horietako batzuek aurretik aipatutakoekin lotura izanik. Zehazki, sexualitatearen esparruan ematen diren aldaketek inpaktu handia izan dezakete arlo psikologiko eta sozialean. Tratamendua bukatu ondoren emakumeek haien gorputz irudiarekiko iritzi negatiboa izan dezakete, honek erlazio interpersonean zailtasunak eraginez<sup>25</sup>. Gainera, askok feminitate galera senti dezakete, baita erakargarriak sentitzeko eta harreman sexuarekin gozatzeko zailtasunak. Honek guztiak inpaktu handia du emakumearengan, eta baita bere inguru sozialean<sup>21,25</sup>. Bestalde, lehenik aipatutako linfedemak psikologikoki daukan inpaktua handia izan daiteke, gorputz irudian ematen den aldaketaren ondorioz emakumearen autoertzepzioan eta autoestimuan eragin baitezake, aurretik aipatutako sexualitatean inpaktua izanez, eta antsietatea, tristura, haserrea... bezalako sentimenduak mugiaraziz<sup>22</sup>. Oro har, sentimendu horiekin batera ager daitezkeen beste bat “minbiziaren berriritzearen beldurra” da, askotan betirako haien bizitzaren parte bihurtu daitezkeena<sup>26</sup>. Gainera, etapa honetan dauzkaten kezka eta erronka guztiekin, lo egiteko arazoak komunak izaten dira, hauek luzaroan mantentzen badira depresio edo neke kronikoan amaitzeko arriskua izanik. Oro har, ikerketa desberdinek bularreko minbizia duten emakumeengan, aurrekaririk ez daukaten emakumeekin alderatuta, depresioaren prebalentzia handiagoa dela egiaztatzen dute<sup>19</sup>. Berdina gerta daiteke arazo kognitiboekin, izan ere, ikerketa desberdinek tratamenduak eta albo ondorioek kontzentratzeko gaitasunean eta epe motzeko memorian efektu negatiboa izan dezaketela egiaztatu dute<sup>19,26</sup>.

Bestalde, minbizia pairatu izanak ekonomikoki inpaktu handia izan dezake. Pazienteek gaixotasunarekin eta zainketekin erlazioatutako gastu ugari bere gain hartu behar dituzte. Gainera, bularreko minbizia bereziki emakumeek pairatzen duten gaixotasuna izanik, eta hauek sarritan ordainduta ez dauden lanetan aritzen direla kontuan harturik, arazo ekonomikoak handiagoak izan daitezke<sup>27</sup>. Baina, nahiz eta ekonomikoki behar handia izan, lanera bueltatzea etapa honetako erronka bihurtzen da, izan ere, paziente askorentzako lana ekonomia indartzeko bidea ez ezik, beste pertsona batzuekin elkar eragiteko, autoestimua indartzeko eta ekoizkor sentitzeko garrantzitsua da. Hala ere, tratamendu fasean minbizia haien bizitzaren erdigunea bilakatu dela kontuan hartu behar da, eta hortaz, hau bukatzerakoan, lanera bueltatzea zaila egin daiteke. Aipatutako sintomak lan eremuan kudeatu behar dituzte, eta haien lana egiteko gaitasuna birplanteatu dezakete, lehen bezain ekoizkorak ez izatearen beldurra inbadituz<sup>28</sup>.

Hortaz, aipatutako guzti honek agerian uzten du auzi fisiko, psikologiko, sozial, espiritual eta ekonomiko ugari aurre egin behar dietela gero eta gehiago diren bularreko minbiziari aurre egin dioten emakumeek. Baina, diagnostiko eta tratamendu etapan atentzio jarraia eta sakona izan badute ere, biziraupen hedatu eta iraunkorrean osasunaren artatzean “huts” handia senti dezakete pazienteek<sup>29</sup>, izan ere, eskaintzen zaien jarraipena eskasa dela somatzen dute, arreta honek ez dituela haien kezka, erronka, arazo edo behar guztiak artatzen, eta hori izan daiteke, hain zuzen, pazienteek behar ugari asetugabe hautematearen arrazoiak<sup>30</sup>. Fenomeno hau minbizia mota guztiekin gerta dakiekeela pentsa daiteke, guztiak babesgabatasun sentazioa senti baitezakete tratamendu fasea bukatzerakoan eta “bizitza normalera” bueltatu behar izaterakoan, baina, minbizia komunenean egindako ikerketa batean, bularreko minbizia pairatu zutenek fase honetan beste guztiak baino asetugabeko behar gehiago aurkeztu zituztela egiaztatu zen<sup>17</sup>.

Aipatutakoaren harira, gaur egun ebidentzia sendoak agerian utzi du asetugabeko beharrek bizi kalitatean eragina dutela: asetugabeko behar gehiago dituzten pazienteek bizitza kalitate baxuagoa dute, eta sintoma eta morbiditate maila handiagoa<sup>31</sup>. Auzi honi heltzeko, biziraupen etapan aurkitzen diren pazienteei jarraipenak egiteko irizpide homogeenak ezartzen dituzten gidak daude, esaterako “*National comprehensive Cancer Network*”-ek (NCCN) burutako giden barruan dagoena (“*Survivorship Version 1.2022*”), baina, hala ere, gehienbat minbizia igaro ondoren dagoen berrerortze arriskuan zentratzen da, oraindik zehaztear baitaude gaixoen beharrak asetzeko gomendio amankomunak<sup>32</sup>. Oro har, “*National Cancer Survivorship Initiative*”-ek (NCSI) osasun zerbitzu nazionalako jarraipenak bizirautea lortu duten pertsonen beharrak asetzeko esfortzua egin beharko lukeela aitortzen du, eta zerbitzuok aktibitate klinikoa ebaluatu eta neurtu ez ezik, pertsonen esperientzia eta haien pertzepzioa neurtu beharko luketela gogorarazten du<sup>33</sup>. Gainera, erakunde desberdinek, bularreko minbizia pairatu ondoren, tratamendua bukatzetik aurrera emakumeek dituzten beharren analisiaren garrantzia identifikatzen eta azpimarratzen dute, hala nola, “*American Cancer Society*”-k<sup>34</sup>.

Hortaz, aipatutako guztiak, osasun profesionalek, eta bereziki erizainek, bularreko minbiziari bizirautea lortu duten emakumeek dituzten beharrak analizatzearen garrantzia handia dela aditzera ematen du. Oro har, aldaketa eta erronka handiko esparru honek ikerketa behar du, pazienteek zer nolako arazoak dituzten jakiteko, haien pertzepzioa ulertzeko, eta emakumeei behar duten eta eskatzen duten arreta eskaini ahal izateko<sup>16</sup>. Are gehiago, Erizaintzaren Kode Deontologikoak erizainek haien artatzea pazientearen beharretara egokitu behar dutela gogorarazten du<sup>35</sup>, hortaz, profesio honen ikuspuntutik, oinarrizkoa da emakume hauek dituzten beharren analisia burutzea, etorkizunean interbentzio egokiak, zehatzak, zentzudunak eta pertsonalatuak eskaini ahal izateko, eta bizipen hau duten emakumeen eta familien bizi kalitatea eta osasuna hobetu ahal izateko.



## **LANAREN HELBURU OROKORRA**

Bularreko minbiziaren ondoren bizirautea lortu duten emakumeek dituzten beharrak aztertzea.

## METODOLOGIA

### Diseinu mota

Gradu amaierako lan honetan proposatutako helburuari erantzuteko xedearekin, *literaturaren errebisio kritikoa* burutu da.

### Bilaketa prozesua

Bilaketa prozesua aurrera eramateko hainbat pausu eman dira. Lehenik eta behin, planteatutako helburua hitz nagusi edo gakoetan deskonposatu da: “*Bularreko minbizia*”, “*bizirautea lortu duten pertsonak*” eta “*beharrak*”. Behin hau burututa, aipatutako hitz bakoitzaren sinonimoak identifikatu dira, eta horiek ingelesera itzuli dira. Ondoren, ingelesera itzulitako hitzak lengoia naturaletik kontrolatura bihurtu dira, datu base bakoitzak erabiltzen dituen deskriptoreak kontuan hartuta (*ikusi 1.eranskina: kontzeptu taula*).

Behin datu base bakoitzeko deskriptoreak lortuta, bilaketa ekuazio desberdinak sortu dira, hitz gakoak konbinatuz eta “operadore booleanoak” (AND eta OR) erabiliz. Bilaketa bakoitzean eskuratutako emaitzen arabera, ekuazioak berrantolatu dira, bilaketa zabalago edo zehatzagoak lortzearren. Gainera, behar izan denean lengoia naturala ere erabili da, lengoia kontrolatuarekin konbinatuz, eta, era berean, datu baseak posible egin duen guztietan “limite” desberdinak zehaztu dira (data eta sexua), emaitza ahalik eta emankorrenak lortzearren.

Modu honetan, datu base desberdinetan (*Medline, Cinahl, PsycINFO, Cuiden, Cochrane, Embase, Lilacs*), lanaren gaiarekin erlazionatuta dauden eta JCR (Journal Citation Reports) sailkapenean indexatutako inpaktu altuko onkologia eremuko aldizkari zientifikoetan (*Journal of Cancer Survivorship, European Journal of Cancer Care, European Journal of Oncology Nursing, Breast Cancer*), eta ebidentzian oinarritutako baliabide elektronikoetan (*RNAO, NICE, JBI*) bilaketak burutu dira (*ikusi 2.eranskina: bilaketa taula*).

### Barneratze eta kanporatze irizpideak

Lan honen bilaketa prozesua aurrera eraman ahal izateko eta artikuluen hautaketa kritiko egokia egiteko zenbait barneratze eta kanporatze irizpide zehaztu dira:

#### *Barneratze irizpideak*

- Argitalpen data: Informazioa eguneratua izan dadin, artikuluen argitalpen data azken 10 urteetara mugatu da: 2011-2021.
- Hizkuntza: Ingelesez eta gazteleraz argitaratutako artikulua aukeratu dira, irakurketa kritikoa egiteko menperatzen diren hizkuntzak baitira.
- Artikulu mota: Artikulu kualitatibo edo kuantitatiboak, literatura errebisioak, errebisio sistematikoak, metanalisiak, eta praktika klinikorako gidak onartu dira, helburuari erantzuteko artikulu mota egokienak baitira.
- Helburua: Proposatutako helburuarekin bat datozen artikulua aukeratu dira, hau da, bularreko minbiziaren tratamendua bukatu ondorengo faseetan dauden emakumezkoek dituzten beharren inguruan hitz egiten dutenak.
- Eskuragarritasuna: “Full-text” eran dauden artikulua barneratu dira.
- Populazioa: 18 urtetik gorako emakumeen, bularreko minbizia pairatu dutenen, eta edozein tratamendu jasota biziraupen fase hedatu edo iraunkorrean daudenen inguruko artikulua barneratu dira. Izan ere, aurretik aipatu den moduan, emakumeengan bularreko minbiziaren intzidentzia eta biziraupena gizonezkoengan baino handiagoa da<sup>10,11</sup>. Eta, era berean, fase hedatu eta iraunkorrean emakumezkoek “normaltasun berriari” ekin behar diote, “pazientetik” “bizirautea lortu duen pertsona” izaterainoko pausoa emanez, eta minbizia pairatu izanaren ondoriozko bigarren mailako efektu guztiak haien kabuz kudeatu behar izanez. Oro har, oso desberdinak dira pazientek biziraupen akutuan dauzkaten beharrak, zeintzuk gaixotasun berean zentratzen diren

(minbiziaren diagnostikoan eta sendaketan), eta behin tratamendua bukatuta pazienteek dituzten beharrak (biziraupen hedatu eta iraunkorrean), zeinetan tratamenduaren luzaroko edo eta betirako bigarren mailako ondorioekin eta arlo desberdinetako erronkekin erlazionatuta dauden<sup>15,16</sup>.

- Geografia eta kultura: Mundu mailan eragin handia duen gaia izanik, edozein herrialde eta kulturako artikulua barneratu dira, ahalik eta informazio gehien lortzeko.

#### *Kanporatze irizpideak*

Barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikulua kanporatu dira, hots, helburuarekin bat ez datozenak, 2011 urtea baino lehenago argitaratutakoak, ingelesa edo gaztelera ez den hizkuntzan idatzitakoak, "full-text" eran eskuragarri ez daudenak, adin pediatrikoan dauden pazienteen inguruan edo gizonezkoen inguruan hitz egiten dutenak, bularreko minbizia ez den beste gaixotasun baten inguruan aritzen direnak, biziraupen akutuan zentratzen direnak, eta parekideen berrikusketa jaso ez dutenak.

#### *Artikuluen Aukeraketa*

Hasteko, burututako bilaketa desberdinetan, barneratze eta kanporatze irizpideetan oinarritutako zenbait filtro ezarri dira, datu baseek eman duten aukeraren arabera: argitalpen data (2011-2021) eta sexua (emakumezkoak).

Behin hori eginda, lortutako artikulua guztietatik (1.250) errepikatuta daudenak kendu dira (371), eta ondoren gelditutako 879 artikuluen izenburua eta abstract-a irakurri da, barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen ez dituzten 804 artikulua kanporatu.

Jarraian, gelditu diren 75 artikulua "full text"-ean eskuragarri daudela egiaztatu da eta artikuluen irakurketari ekin zaio, oraindik barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen ez dituzten 59 artikulua baztertuz, eta hortaz 16 artikulua gelditu dira (*ikusi 3.eranskina: Artikuluen Fluxu diagrama*).

Ondoren, gelditutako 16 artikuluen irakurketa kritikoa burutu da, eskuratutako artikuluen kalitatea ziurtatzearen, guztiak barneratu direlarik (*ikusi 4.eranskina: artikuluen irakurketa kritikoa*). Modu honetan, lana burutzeko erabili diren 16 artikulua hauen artean 9 kuantitatibo, 5 kualitatibo eta 2 misto aurkitzen dira.


#### *Artikuluen Analisia*

Behin betiko artikuluen hautaketa kritikoa burutu ostean, aukeratutako 16 artikuluen emaitzen interpretazioa eta analisia errazteko helburuarekin, artikulua bakoitzaren laburpen taula osatu da, zeinetan, *egileak, lurraldea eta argitalpen urtea, helburua, diseinu mota, lagina eta bere ezaugarriak eta emaitzak zein ideia nagusienak* modu zehatz eta argian jaso diren (*ikusi 5.eranskina: Emaitzetarako artikuluen laburpen-taulak*).

Era berean, edukiaren araberako analisia ere egin da. Modu honetan lanaren emaitzen atala osatzeko eta helburuari erantzuteko informazio esanguratsuena kategoriatan desberdinetan antolatuta da, zuhaitz kategoriala sortuz (*ikusi 6.eranskina: Zuhaitz kategoriala*).

## EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Literaturaren berrikusketa kritiko honen helburuari erantzuten dioten 16 artikulua aukeratu dira: 9 kuantitatibo, 5 kualitatibo eta 2 misto (*1.irudia*). Aukeratutako artikulua gehienak azken 5 urteetan argitaratutakoak dira (*2.irudia*). Halaber, artikulua lurrean ezberdinetan publikatu dira (*3.irudia*).



Aukeratutako artikulua ezberdinek bularreko minbiziari bizirautea lortu duten emakumeek bost motatako beharrak dituztela agerian utzi dute, hots, behar *fisikoak*, *psikosozialak*, *ekonomikoak*, *espiritualak eta osasun arretari* dagozkionak. Horrez gain, behar hauek hainbat faktorek modulatu ditzaketela iradoki dute, hala nola, *gaixotasunaren ezaugarriak*, *biziraupen denborak eta adinak*.

### 1.Bularreko minbiziari bizirautea lortu duten emakumeen beharrak

#### 1.1 Beharrak arlo fisikoan

Minbizia sendatzeko erabiltzen diren tratamenduek eragiten dituzten bigarren mailako ondorioak asko dira, eta, oro har, hauek kudeatzeko pazienteek azaleratzen dituzten beharrak handiak dira<sup>36-38</sup>. Honen harira, errebisatutako literaturak, agerian utzi du emakumeek laguntza eta sostengua behar dutela bigarren mailako zenbait efektu maneiatzeko, hala nola, *mina*, *nekea*, *linfedema*, *neuropatia periferikoa*, *pisu igoera eta funtzionaltasunaren galera*.

#### • Mina maneiatzeko beharra

Eta honetan emakumeek pairatzen duten mina maneiatzeko laguntzaren beharrari buruz aritzen diren 6 artikulua topatu dira (*ikusi 1.taula*).

| 1.Taula. Mina maneiatzeko beharra |                     |                            |            |  |
|-----------------------------------|---------------------|----------------------------|------------|--|
| Autoreak                          | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n) | Emaitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa                  |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>    | Australia (2021)    | Kuantitatibo transbertsala | 130        | Azken hilabeteen jasandako arazoengatik inguruko galdetegia/ CaSUN |
| Cheng et al <sup>42</sup>         | Singapur (2014)     | Kuantitatibo transbertsala | 150        | MSAS   |
| Capelan et al <sup>41</sup>       | Ingalaterra (2017)  | Kuantitatibo transbertsala | 625        | HNA  |

|                                 |                   |                            |                                     |   |
|---------------------------------|-------------------|----------------------------|-------------------------------------|---|
| So et al <sup>39</sup>          | Hong Kong (2014)  | Kuantitatibo transbertsala | 163                                 | SCNS-SF34   |
| Vandendorpe et al <sup>40</sup> | Frantzia (2021)   | Kuantitatibo transbertsala | 139                                 | Minbiziaren osteko beharren inguruko galdetegia                 |
| Napoles et al <sup>38</sup>     | Kalifornia (2017) | Mistoa                     | 143<br>paziente<br>9<br>profesional | Bularreko minbiziaren tratamenduaren osteko beharren galdetegia |

Arlo honetako artikulu guztietan tratamendua bukatu osteko biziraupen fasean mina pazientek adierazten duten luzaroko efektu nagusienetako bat dela egiaztatu da, emakumeek beharrak izan ditzaketela agerian utziz<sup>38-43</sup>.

Honen harira, emakumeek etapa honetan dituzten beharrak identifikatzen saiatu diren autoreek “minaren maneia” sarri aipatzen dela ikusi dute<sup>38,39,41</sup>. Autore horien artean, Capelan eta kolaboratzaileak daude. Zehazki, honako hauek, Ingalaterran tratamendua bukatu ondorengo biziraupen programa batean hasiko ziren emakumeen laguntzaz burututako ikerketa kuantitatiboan, egunerokotasunean ohikoa den mina artatzearen beharra gehien aipatu ziren hamar asetugabeko beharren artean zegoela ikusi zuten<sup>41</sup>. Antzeko emaitzak lortu zituzten So eta kolaboratzaileek Hong Kong-en aurrera eramandako ikerketa kuantitatiboan, zeinetan gutxienez urtebete lehenago tratamendua osatu zuten emakumeek, arlo fisikoan minaren maneia bigarren behar prebalentea zela adierazi zuten<sup>39</sup>. Halaber, Napoles eta kolaboratzaileek Kalifornian tratamendua bukatu zuten pazienteen laguntzaz burututako ikerketa mistoan ere behar hau gaineztu zen, %53ak identifikatuz<sup>38</sup>.

Bestalde, arlo honetan, azpimarratzekoak dira Vandendorpe eta kolaboratzaileek Frantzian burututako ikerketa kuantitatiboan lortutako emaitzak. Honetan, tratamendua 2015 eta 2017an bukatu zuten emakumeek mina oso prebalentea zela adierazi zuten (%51,9ak mina zeukala adieraziz), baina, aurreko artikuluen adierazpenekin alderatuta, maneiatzeko behar zuten laguntza txikia zen (%83,1ak ez zuen mina artatzeko osasun profesionalen laguntza nahi). Autoreen arabera, honen atzean, mina artatzeko erabiltzen diren farmakoak hartu nahi ez izatea egon liteke, izan ere, pazientek tratamendu fasean zehar farmako ugari hartzen dituzte (bigarren mailako ondorio asko dituztenak), eta hortaz, behin bukatuta medikamentu gehiago hartzea ekidin dezakete<sup>40</sup>. Halaber, azken hau izan liteke Vuksanovic eta lankideek burututako ikerketan emakumezkoen %24,1ak sintomak maneiatzeko terapia osagarrien edota alternatiboen zerbitzuetarako sarbidearen beharra azaleratu izana<sup>43</sup>.

• **Nekea eta energia maneiatzeko beharra**

Etapa honetan nekearekin erlazionatutako beharrei buruz aritzen diren 6 artikulu topatu dira (*ikusi 2.taula*).

| 2.Taula. Nekea eta energia maneiatzeko beharra |                     |                            |                                     |  |
|--|---------------------|----------------------------|-------------------------------------|--|
| Autoreak                                       | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n)                          | Emaitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa                        |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>                 | Australia (2021)    | Kuantitatibo transbertsala | 130                                 | Azken hilabeteen jasandako arazoengatik inguruko galdetegia              |
| Napoles et al <sup>38</sup>                    | Kalifornia (2017)   | Mistoa                     | 143<br>paziente<br>9<br>profesional | Bularreko minbiziaren tratamenduaren osteko beharren inguruko galdetegia |
| Capelan et al <sup>41</sup>                    | Ingalaterra (2017)  | Kuantitatibo transbertsala | 625                                 | HNA  |
| Kim et al <sup>44</sup>                        | Hego korea (2020)   | Kualitatibo transbertsala  | 20                                  | Talde elkarriketak   |
| So et al <sup>39</sup>                         | Hong Kong (2014)    | Kuantitatibo transbertsala | 163                                 | SCNS-SF34  |
| Cheng et al <sup>42</sup>                      | Singapur (2014)     | Kuantitatibo transbertsala | 150                                 | SCNS   |

Berrikusi den literaturak, emakumeen artean nekea oso presente dagoen beste auzi fisikoa dela azaleratu du<sup>39,41-43</sup>. Halaber, nekea maneiatzeko laguntza osasun sistemari eskatzen zaion gai garrantzitsuenen artean dagoela egiaztatu dute zenbait autoreek<sup>38,44</sup>. Horrela ikusi zuten adibidez arestian aipatutako Napoles eta kolaboratzaileek burututako ikerketan, “nekearen maneiua” pazienteek adierazitako behar fisiko nagusien artean egon baitzen, %42ak maneiatzeko beharra izanik<sup>38</sup>. Datu hauek Kim eta kolaboratzaileek Koreako hegoaldean burututako ikerketa kualitatibotik jasotakoekin alderatu daitezke, izan ere, honetan, tratamendua bukatu zuten emakumeek egunerokotasunean zituzten sintoma komunenak kudeatzeko eta arintzeko abileziaren beharra identifikatu zuten, nekea azpimarratuz<sup>44</sup>.

Bestalde, berrikusi diren beste ikerketa batzuetan “nekea” oso presente egon da, baina, ondorengo kasuetan, laginaren ehuneko txikiago batek adierazi du maneiatzeko beharra. Hauen artean, So eta kolaboratzaileen ikerketa dago. Zehazki, honetan laginaren %17,2ak energia falta eta nekearen maneiua asetugabeko behar bezala somatzen zuela jakinarazi zuen<sup>39</sup>. Antzeko emaitzak lortu zituzten arestian aipatutako Capelan eta kolaboratzaileek burututako ikerketan, zeinetan %21ak nekea asetugabeko behar bezala adierazi zuen<sup>41</sup>. Ildo beretik, Cheng eta kolaboratzaileek burututako ikerketa kuantitatiboan, tratamendua 6 hilabetetik-5 urte lehenago bukatu zuten emakumezkoen %11,3ak nekea asetugako behar bezala identifikatu zuen<sup>42</sup>. Azpimarratzekoa da azkenengo hiru artikuluko hauetan, aurrekoekin alderatuta, emakumeen gehiengoak diagnostikotik denbora gehiago igaro zuela, eta hori, biziraupen denbora, izan liteke lagin txikiago batek nekearen arloan beharrak azaleratzearen arrazoia.

•**Linfedema maneiatzeko beharra**

Eta honetan komuna den linfedemaren eta erlazionatutako beharren inguruan aritzen diren 5 artikuluko topatu dira (*ikus 3.taula*).

| <b>3.Taula. Linfedema maneiatzeko beharra</b> |                            |                            |                                  |   |
|---|----------------------------|----------------------------|----------------------------------|---|
| <b>Autoreak</b>                               | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b>                | <b>Emaitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b>                  |
| Vandendorpe et al <sup>40</sup>               | Frantzia (2021)            | Kuantitatibo transbertsala | 139                              | Minbiziaren osteko beharren inguruko galdetegia                           |
| Cheng et al <sup>42</sup>                     | Singapur (2014)            | Kuantitatibo transbertsala | 150                              | MSAS  |
| Ridner et al <sup>45</sup>                    | Estatu Batuak (2016)       | Kualitatiboa               | 21                               | Talde elkarrizketak   |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>                | Australia (2021)           | Kuantitatibo transbertsala | 130                              | Azken hilabetean jasandako arazoengatik inguruko galdetegia               |
| Napoles et al <sup>38</sup>                   | Kalifornia (2017)          | Mistoa                     | 143<br>paziente<br>9 profesional | Bularreko minbiziaren tratamenduaren osteko beharren inguruko galdetegia. |

Oro har, linfedema, emakumeentzako garrantzizkoa den eta behar ugari eraginarazten dituen auzi fisikoa dela agerian utzi du aztertutako literaturak<sup>38,40,43,45</sup>. Hain zuzen ere, Cheng eta kolaboratzaileek burututako ikerketan, laginaren %13,3ak linfedema aurreko astean pairatu zuela adierazi zuen<sup>42</sup>, eta, halaber, Vuksanovic eta kolaboratzaileek burututakoan, linfedema %14,8ak aurreko hilabetean izandako arazoengatik zegoela zioen<sup>43</sup>.

Egunerokotasunean presente dagoen arazoa izanda, honi erlazionatutako behar eta mugak azaleratzen dituzte emakumeek<sup>40,45</sup>. Zehazki, hori egiaztatu zen Estatu Batuetako unibertsitate batean burututako ikerketa kualitatiboan, zeinetan linfedemarekin erlazionatutako autozainketa beharrak aztertzen saiatu ziren, tratamendua osatu zuten emakumeen laguntzaz. Elkarrizketa hauetan, paziente batzuek (%24) haien eritasuna kudeatzeko sostengu faltaren inguruan hitz egin zuten, hots, eguneroko bizitzan linfedemak eragiten zien mugarengatik laguntza fisikoa

behar zutela zioten. Halaber, emakumeek haien autozainketarako materialen horniketaren beharra mahaigaineratu zuten, izan ere, zaila egiten zitzaien linfedema kudeatzeko beharrezko material desberdinak lortzea, eta horretarako, osasun profesionalen gomendioak ez ezik, materialak erosteko leku zentralizatuen beharra identifikatu zuten<sup>45</sup>.

•**Neuropatia periferikoa maneiatzeko beharra**

Eta honetan komuna den neuropatia periferikoari eta erlazionatutako beharrei buruz aritzen diren 4 artikuluko topatu dira (*ikusi 4.taula*).

| 4.Taula. Neuropatia periferikoa maneiatzeko beharra |                     |                            |   |  |
|---|---------------------|----------------------------|---|--|
| Autoreak  | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n)                                | Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa                         |
| Napoles et al <sup>38</sup>                         | Kalifornia (2017)   | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional             | Bularreko minbiziaren tratamenduaren osteko beharren inguruko galdetegia |
| Capelan et al <sup>41</sup>                         | Ingalaterra (2017)  | Kuantitatibo transbertsala | 625                                       | HNA  |
| Cheng et al <sup>46</sup>                           | Hong Kong (2018)    | Mistoa                     | 250<br>kuantitatiboan 60<br>kualitatiboan | Talde elkarrizketak  |
| Kim et al <sup>44</sup>                             | Hego korea (2020)   | Kualitatiboa               | 20  | Talde elkarrizketa   |

Berrikusi diren ikerketek, eskuen eta oinen sorgortzeari aurre egiteko emakumeek sostengua, informazioa eta baliabideak behar dituztela aditzera eman dute<sup>38,41,44,46</sup>. Hain zuzen ere, Napoles eta lankideen ikerketan, %35ak neuropatia periferikoaren ondorioz eskuetan eta oinetan sentitzen zuen sorgortze eta inurridura maneiatzeko laguntza adierazi zuen<sup>38</sup>. Datu hauek alderagarriak dira Capelan eta kolaboratzaileek burututako ikerketan lortutakoekin, neuropatiaren maneia biziraupen etapan ematen diren 10 arazo demandatuenean artean baitzegoen<sup>41</sup>.

Baina, nahiz eta bigarren mailako ondorio honen maneia demandatua izan, pazienteek haien kezka azaleratzeko eta sostengua jasotzeko aukera mugatuak nabaritzen dituztela iradoki dute. Horrela adierazi zuten esaterako Cheng eta lankideek Hong Kong-en tratamendua 6 hilabetetik 5 urte lehenago bukatu zuten emakumeekin burututako ikerketa mistoan jasotako emaitzek<sup>46</sup>. Eta bat datoz paziente hauen adierazpenak arestian jorrotutako Kim eta kolaboratzaileek bildutako emaitzekin, izan ere partaide hauek harago joan ziren, emakumeek sintoma iraunkorrak kudeatzeko ezagutzak (kausa eta iraupena bereziki), arintzeko trebetasunak eta baliabideak behar zituztela adierazi baitzuten, neuropatia periferikoari erreferentzia eginez<sup>44</sup>.

•**Pisu igoera maneiatzeko beharra**

Eta honetan emakumeek jasan dezaketen pisu igoerari eta maneiatzeko beharrei buruz aritzen diren 5 artikuluko topatu dira (*ikusi 5.taula*).

| 5.Taula. Pisu igoera maneiatzeko beharra |                     |                            |                               |   |
|--|---------------------|----------------------------|-------------------------------|---|
| Autoreak                                 | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n)                    | Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa                |
| Vandendorpe et al <sup>40</sup>          | Frantzia (2021)     | Kuantitatibo transbertsala | 139                           | Minbiziaren osteko beharren inguruko galdetegia                 |
| Napoles et al <sup>38</sup>              | Kalifornia (2017)   | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional | Bularreko minbiziaren tratamenduaren osteko beharren galdetegia |
| Kim et al <sup>44</sup>                  | Hego korea (2020)   | Kualitatiboa               | 20                            | Talde elkarrizketa  |
| Tisnado et al <sup>47</sup>              | Kalifornia (2017)   | Kualitatibo deskriptiboa   | 74                            | Talde elkarrizketak   |
| Capelan et al <sup>41</sup>              | Ingalaterra (2017)  | Kuantitatibo transbertsala | 625                           | HNA   |

Komuna den pisu igoerari aurre egitea erronka handia bilakatzen da, eta, hori dela eta, maneiatzeko laguntza azaleratzen dute emakumeek, hots, arlo honetan dieta eta ariketa fisikoari buruzko gomendioak behar dituzte<sup>38,40,41,44,47</sup>.

*Dietarekin* erlazionatutako beharraren inguruan aritzen diren 4 ikerketa berrikusi dira. Lehena Vandendorpe eta kolaboratzaileek burututakoa, zeinetan %30ak dietaren inguruan aritzeko laguntza profesionala behar zuela jakinarazi zuen<sup>40</sup>. Bigarrena, Napoles eta lankideek burututakoa, honetan %74ak dieta osasuntsuagoa eramateko laguntzaren beharra identifikatu baitzuen<sup>38</sup>. Gehiago zehaztu zituzten aurrekoen adierazpenak Kim eta kolaboratzaileek burututako ikerketan barneratutako emakumezkoek, zeintzuek haien osasunerako elikagai onenak eta txarrenak zeintzuk ziren jakin nahi zuten<sup>44</sup>. Ildo beretik, alderagarriak dira aurrekoarekin Tisnado eta kolaboratzaileek Los Angelesen ikerketa kualitatiboan jasotako emaitzak. Honetan, tratamendua bukatu zuten eta diagnostikoa 6 hilabetetik-10 urte lehenago jaso zuten emakume latindarrek, dietaren inguruko arriskuak, onurak eta gomendioak zeintzuk ziren jakiteko beharra adierazi baitzuten<sup>47</sup>.

Halaber, aipatutako 2 ikerketetan emakumeek *ariketa fisikoaren* inguruko beharrak ere azalatu zituzten. Zehazki, Napoles eta kolaboratzaileek burututakoan, %70ak ariketa fisikoa egiten hasteko laguntza behar zuen<sup>38</sup>. Eta, Tisnado eta lankideek burututakoan, ariketa fisikoari buruzko gomendioak behar zituztela adierazi zuten<sup>47</sup>.

Hala ere, aipatzekoa da errebisatutako ikerketek pazienteek honen inguruko informazio eskasa daukatela agerian utzi dutela<sup>41,47</sup>. Hau izan zen Tisnado eta kolaboratzaileen ikerketan emakumeek aipatutako gaia<sup>47</sup>, eta honakoa Capelan eta lankideek jasotako datuekin osatu daiteke, pazienteen %30ak soilik jaso baitzituen dieta eta ariketaren inguruko gomendioak, nahiz eta beharrak izan arlo honetan<sup>41</sup>.

#### •Funtzionaltasun galera maneiatzeko beharra

Muga fisiko guztiengatik, emakumeak errebisatutako 3 ikerketetan egunerokotasunean sentitzen duten funtzionaltasun galeraren inguruan aritu dira, honi aurre egiteko behar duten laguntza mahaigaineratuz (*ikusi 6.taula*).

| 6.Taula. Funtzionaltasun galera maneiatzeko beharra |                     |                            |                               |   |
|---|---------------------|----------------------------|-------------------------------|---|
| Autoreak  | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n)                    | Emaitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa |
| So et al <sup>39</sup>                              | Hong Kong (2014)    | Kuantitatibo transbertsala | 163                           | SCNS-SF34   |
| Dsouza et al <sup>37</sup>                          | India (2018)        | Kualitatiboa               | 17                            | Banakako elkarrizketak                            |
| Napoles et al <sup>38</sup>                         | Kalifornia (2017)   | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional | Talde eta banakako elkarrizketak                  |

Hasteko, arestian aipatutako So eta kolaboratzaileek burututako ikerketan, %14,7ak lehen egiten zituen gauzak egiteko laguntza behar zuela adierazi zuen<sup>39</sup>. Emaitza hauek gehiago zehaztu zituzten Dsouza eta lankideek Indian burututako ikerketa kualitatiboan barneratu ziren eta 6 hilabete lehenago tratamendua osatu zuten emakumeek, zeintzuek, aurrekoek bezala, eguneroko jarduerak egiteko laguntza behar zutela adierazi zuten, eta zehazki, etxea garbitzeari, sukaldatzeari eta gorputza garbitzeari erreferentzia egin zioten<sup>37</sup>.

Behar honen atzean, tratamenduaren bigarren mailako ondorioak eta fase honetan agertzen diren arazoak artatzearen falta egin liteke Kalifornian burututako ikerketa mistoaren arabera, non osasun profesionalek eta emakumezkoek etapa honetan sintomak gaizki maneiatzen zirela eta batzuetan alde batera uzten zirela adierazi zuten, eta, arrazoi horrengatik, egunerokotasuneko ekintzak aurrera eramaterakoan emakumeek behar ugari zituztela<sup>38</sup>.



## **1.2 Beharrak arlo psikosozialean**

Errebisatutako ikerketek emakumezkoek arlo psikosozialean behar handiak dituztela agerian utzi dute<sup>36,40,42</sup>. Hain zuzen ere, pazienteek normaltasun berriari ekiteko aurregite estrategiak garatzeko laguntzaren eta sostengu emozionalaren beharra dute etapa honen berezkoak diren hainbat erronka kudeatzeko, hots, *berreritzearen beldurra, antsietatea, gorputz irudiaren aldaketa, bikotekide eta familia kideekin harreman aldaketak eta emozioen kudeaketa*.

### **•Berreritzearen beldurra maneiatzeko beharra**

Etapa honetan emakumeek duten berreritzearen beldurraren eta erlazionatutako beharren inguruan aritzen diren 11 artikulu topatu dira (*ikusi 7.taula*).

| <b>7.Taula. Berreritzearen beldurra maneiatzeko beharra</b> |                            |                            |  |  |
|---|----------------------------|----------------------------|--|--|
| <b>Autoreak</b>   | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b>                      | <b>Emaitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b> |
| Napoles et al <sup>38</sup>                                 | Kalifornia (2017)          | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional          | Talde eta banakako elkarrizketak                         |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>                              | Australia (2021)           | Kuantitatibo transbertsala | 130                                    | CaSUN  |
| Cheng et al <sup>46</sup>                                   | Hong Kong (2018)           | Mistoa                     | 250 kuantitatiboan<br>60 kualitatiboan | SCNS-SF34  |
| So et al <sup>39</sup>                                      | Hong Kong (2014)           | Kuantitatibo transbertsala | 163                                    | SCNS-SF34  |
| Cheng et al <sup>42</sup>                                   | Singapur (2014)            | Kuantitatibo transbertsala | 150                                    | SCNS-SF34  |
| Kim et al <sup>44</sup>                                     | Hego Korea (2020)          | Kualitatiboa               | 20                                     | Talde elkarrizketa                                       |
| Hubbelig et al <sup>50</sup>                                | Mexiko (2018)              | Kualitatiboa               | 25                                     | Banakako elkarrizketak                                   |
| Dsouza et al <sup>37</sup>                                  | India (2018)               | Kualitatiboa               | 17                                     | Banakako elkarrizketak                                   |
| Tisnado et al <sup>47</sup>                                 | Kalifornia (2017)          | Kualitatiboa               | 74                                     | Talde elkarrizketak                                      |
| Ellegaard et al <sup>48</sup>                               | Dinamarka (2017)           | Kuantitatibo transbertsala | 155                                    | CARQ-4/CaSUN   |
| Fang et al <sup>49</sup>                                    | Taiwan (2018)              | Kuantitatibo transbertsala | 192                                    | CaSUN  |

Behin tratamendua bukatuta pazienteak jarraipen estua izatetik, noizbehinkako errebisioak egitera pasatzen dira, eta, oro har, honek askori eritasuna kontrolpean egongo ote ez delaren beldurra eragiten die. Horrelako adierazpenak luzatu zituzten Napoles eta kolaboratzaileen ikerketan emakumezkoek. Haien hitzen arabera, aldaketa handia nabaritu zuten etengabeko onkologiako atentziotik noizbehinkako lehen mailako arretaren atentziara bat-batean igarotzean. Hots, emakumeek onkologiako osasun profesionalekin babes sentrazioa zuten, minbizian espezializatuak baitziren, eta ondo ezagutzen baitzuten haien gaixotasun prozesua, baina, lehen mailako arretara igarotzerakoan haien egoera sakonki ezagutuko ez zutelaren beldur ziren, berreritzearen ideia burutik ezin aldenduz<sup>38</sup>.

Azken honen harira, asko dira emakumezkoen beharrak aztertzen saiatuz, *“berreritzearen beldurraren kudeaketa”* behar demandatuenen artean dagoela ikusi duten ikerlariak<sup>37-39,42-44,46-50</sup>. Horien artean, arestian aipatutako Vuksanovic eta kolaboratzaileen ikerketa dago, berreritzearen beldurra gehien informatutako asetugabeko beharra izan baitzen<sup>43</sup>. Antzekoa gertatu zen Cheng eta lankideen ikerketan, gehien adierazi ziren 5 beharren artean baitzegoen<sup>46</sup>.

Aurrekoekin bat, Ellegaard eta kolaboratzaileek tratamendua 3 hilabetetik-5 urte lehenago bukatutako emakumeekin ikerketa kuantitatibo bat burutu zuten Dinamarkan, partaideek zituzten sostengu beharrak eta berreritzearen beldurraren prebalentzia identifikatzeko aldera. Horretarako, CaSUN (beharrak aztertzeko) eta CARQ-4 (berreritzearen beldurra aztertzeko), galdetegiak erabili zituzten. Konkretuki, %54,8ak berreritzeren beldurra zuela adierazi zuen

CARQ-4 galdetegiarekin, eta, beldur horren garrantzia CaSUN-ekin egiaztatu zen, gehien adierazitako behar asetugabeen artean baitzegoen<sup>48</sup>.

Guzti honen harira, etapa honetan ematen den jarraipen aldaketa ahalik eta hoberen kudeatzeko biziraupen programa baten beharra ikusten da, lehen mailako arretara pasatzeko trantsizio formala barne hartzen duena, eta, halaber, emakumezkoek osasun profesionalen aldetik lasaitasuna eta beldurra kudeatzeko laguntza behar dutela argi geratzen da. Zehazki, hauek izan ziren arestian aipatutako Napoles eta kolaboratzaileek burututako ikerketan parte hartutako osasun profesionalek egindako adierazpenak, gainontzeko ikerketekin bat etorri<sup>38</sup>.

**•Antsietatea maneiatzeko beharra**

Aipatutako beldurrak eta arestian jorratu diren erronkek, emakumezkoek etapa honetan antsietate jasatea eragiten dute. Hori dela eta, errebisatutako 4 ikerketetan kudeatzeko laguntzaren beharra identifikatzen da (*ikus 8.taula*).

| 8.Taula. Antsietatea maneiatzeko beharra |                     |                            |            |  |
|--|---------------------|----------------------------|------------|--|
| Autoreak                                 | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n) | Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa |
| Hubbeling et al <sup>50</sup>            | Mexiko (2018)       | Kualitatiboa               | 25         | Banakako elkarrizketak                           |
| Kim et al <sup>44</sup>                  | Hego korea (2020)   | Kualitatiboa               | 20         | Talde elkarrizketa                               |
| So et al <sup>39</sup>                   | Hong Kong (2014)    | Kuantitatibo transbertsala | 163        | SCNS-SF34  |
| Capelan et al <sup>41</sup>              | Ingalaterra (2017)  | Kuantitatibo transbertsala | 625        | HNA  |

Antsietatearen kausa zeukaten atentzio txikiari eta horrek sortzen zien berreritzearen beldurrari egozten zioten Hubbeling eta kolaboratzaileek Mexikon burututako ikerketa kualitatiboan barneratutako partaideek. Honetan, emakume gazteen behar psikosozialak aztertzeko, 41 urte baino gutxiago zituzten eta diagnostikotik gutxienez 5 urte osatu zituzten emakumeen adierazpenek, antsietatea jaisteko jarraipen estuagoaren beharra agerian utzi zuten<sup>50</sup>. Antzekoa gertatzen zitzairen arestian aipatutako Kim eta lankideen ikerketan emakumeei, tratamenduaren ostean haien osasunaren kudeaketaren arduradunak sentitzen baitziren, horrek antsietatea eraginaraziz, eta hortaz, kudeatzeko jarraipen estuagoa behar zutela aditzera emanez<sup>44</sup>.

Halaber, antsietatea maneiatzeko beharra ikerketa kuantitatibo desberdinetan azalerratu da, esaterako, So eta lankideek burututakoan, zeinetan %18,4ak antsietatea asetugabeko behar bezala aurkeztu zuen<sup>39</sup>, edo Capelan eta kolaboratzaileen ikerketan, non laginaren %16ak identifikatu zuen<sup>41</sup>.

**•Gorputz irudiaren aldaketak maneiatzeko beharra**

Etap honetan ematen den gorputz irudiaren aldaketari eta erlazonatutako beharrei buruz aritzen diren 3 artikuluko topatu dira (*ikus 9.taula*).

| 9.Taula. Gorputz irudiaren aldaketak maneiatzeko beharra |                     |                            |            |  |
|--|---------------------|----------------------------|------------|--|
| Autoreak   | Lurraldea eta urtea | Diseinua                   | Lagina (n) | Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa                                 |
| Kim et al <sup>44</sup>                                  | Hego korea (2020)   | Kualitatiboa               | 20         | Talde elkarrizketa   |
| Dsouza et al <sup>37</sup>                               | India (2018)        | Kualitatiboa               | 17         | Banakako elkarrizketak   |
| Pauwels et al <sup>36</sup>                              | Belgika (2013)      | Kuantitatibo transbertsala | 465        | Bularreko minbiziaren ondoren emakumezkoek dituzten beharren inguruko galdetegia |

Bularreko minbiziari aurre egin ondoren gorputz irudian aldaketa ugari ematen dira, honek psikologikoki inpaktu handia eraginaraziz. Horregatik, pazienteek aldaketa guzti horiek

kudeatzeko laguntza behar dutela iradoki dute<sup>36,37,44</sup>. Horrela adierazi zuten esaterako Kim eta kolaboratzaileek burututako ikerketan emakumeek, gorputz irudiaren aldaketetara moldatzeko gaitasunak garatzeko laguntza behar zutela jakinarazi baitzuten<sup>44</sup>. Antzeko ekarpenak egin zituzten Dsouza eta kolaboratzaileen ikerketan emakumeek, eta kasu honetan gehiago zehaztu zituzten aurrekoen adierazpenak, izan ere, kezka handienak ilea erori izanak eta mastektomiak sortzen zizkieten, aspektu horiek maneiatzeko beharra agerian utziz<sup>37</sup>.

Oro har, datu kuantitatiboek ere, aurrekoekin bat, behar hau mahaigaineratzen dute, horien artean Pauwels eta lankideek 3 aste-6hilabete lehenago tratamendua bukatu zuten emakumezkoekin Belgikan burututako ikerketa, zeinetan, laginaren %53,8ak gorputz irudiari dagokionez sostengu beharrak zituela adierazi zuen<sup>36</sup>.

•**Sexualitatea eta bikotekidearekin harremanak maneiatzeko beharra**

Aurretik aipatutako guztiak, sexualitatean eragin handia izan dezakeela aditzera eman dute hainbat ikerketek, honek kasu batzuetan bikote harremanetan eraginez, eta hortaz, arlo hauetan beharrak sortaraziz (*ikusi 10.taula*).

| <b>10.Taula. Sexualitate eta bikotekidearekin harremanak maneiatzeko beharra</b> |                            |                            |                   |  |
|--|----------------------------|----------------------------|-------------------|--|
| <b>Autoreak</b>  | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b> | <b>Eraitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b>                         |
| Pauwels et al <sup>36</sup>  | Belgika (2013)             | Kuantitatibo transbertsala | 465               | Bularreko minbiziaren ondoren emakumezkoek dituzten beharren inguruko galdetegia |
| Vandendorpe et al <sup>40</sup>  | Frantzia (2021)            | Kuantitatibo transbertsala | 139               | Minbiziaren osteko beharren inguruko galdetegia                                  |
| So et al <sup>39</sup>   | Hong Kong (2014)           | Kuantitatibo transbertsala | 163               | SCNS-SF34  |
| Cheng et al <sup>42</sup>  | Sigapur (2014)             | Kuantitatibo transbertsala | 150               | SCNS-SF34  |

Honen harira, aipatzekoa da berrikusitako ikerketetan emaitza kontraesankorrak jaso direla: ikerketa batzuek emakumezkoek arlo honetan behar maila handia dutela iradoki dute, esaterako, arestian aipatutako Pauwels eta kolaboratzaileek Belgikan burututakoan, zeinetan %39,6ak sexualitate arloan beharrak zituela adierazi zuen eta %34ak beharrak zituen bikote harreman arloan<sup>36</sup>. Edo Vandendorpe eta lankideek Frantzian burututakoan, zeinetan sexualitate beharrei heltzeko %17,4ak sexologo batekin hitz egiteko beharra identifikatu zuen<sup>40</sup>.

Baina, datu hauen kontra, beste ikerketa batzuetan sexualitatearen arloan emakume gutxi adierazi dituzte beharrak, hala nola, So eta lankideek Hong Kong-en burututakoan, zeinetan %11k sexualitatearen inguruko informazioaren beharra identifikatu zuen (gutxi adierazi zen beharren artean egonik)<sup>39</sup>, edo eta Cheng eta kolaboratzaileek Singapurren burututakoan, zeinetan soilik %5,3ak azaleratu zituen beharrak sexualitatearen domeinuan<sup>42</sup>.

Hala ere, emaitza hauen desberdintasunaren atzean kutsu kulturala egon liteke, izan ere, nabaritzekoa da azkenik aipatutako bi artikulak, non, pazienteek sexualitatearen arloan behar maila txikia adierazi zuten, Asian burututakoak direla, eta beste biak, non emakume gehiagok arlo honetan beharrak adierazi zituzten, berriz, Europakoak.

•**Familia-lagun harreman aldaketak maneiatzeko beharra**

Inguru sozialean ematen diren harreman aldaketei eta erlazionaturiko beharrei buruz aritzen diren 6 artikulua topatu dira (*ikusi 11.taula*).

| <b>11.Taula. Familia-lagun harreman aldaketak maneiatzeko beharra</b> |                            |                            |                               |   |
|---|----------------------------|----------------------------|-------------------------------|---|
| <b>Autoreak</b>   | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b>             | <b>Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b> |
| Kim et al <sup>44</sup>   | Hego korea (2020)          | Kualitatiboa               | 20                            | Talde elkarrizketa                                      |
| Ridner et al <sup>45</sup>  | Estatu Batuak (2016)       | Kualitatiboa               | 21                            | Talde elkarrizketak                                     |
| Dsouza et al <sup>37</sup>  | India (2018)               | Kualitatiboa               | 17                            | Banakako elkarrizketak                                  |
| Napoles et al <sup>38</sup>   | Kalifornia (2017)          | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional | Talde eta banakako elkarrizketak                        |
| Hubbeling et al <sup>50</sup>   | Mexiko (2018)              | Kualitatiboa               | 25                            | Banakako elkarrizketak                                  |
| Cheng et al <sup>42</sup>   | Sigapur (2014)             | Kuantitatibo transbertsala | 150                           | SCNS-SF34   |

Ikerketa desberdinetan etapa honetan sostengu familiarra eta soziala funtsezkoa dela egiaztatu da, arlo askotan laguntzen baitie pazienteei aurreko bizitzari ekiten eta bigarren mailako ondorioak kudeatzen<sup>37,38,44,45</sup>.

Baina, halaber, tratamendua bukatzerakoan harreman sozialetan aldaketak ematen direla adierazi dute hainbat emakumeek<sup>38,44,45</sup>. Hain zuzen ere, aipatutako ikerketa horietan pazienteek sostengu soziofamiliarra tratamendua bukatzerakoan asko txikiagotzen zela iradoki zuten, izan ere, emakumeek tratamenduan zehar inguru sozialaren sostengu handia bazuten ere, tratamendua bukatzerakoan haien inguru kideak asko aldendu zirela zioten. Aurreko honek bakarrik sentiaraztera eramaten zituen, arlo honetan beharrak zituztela agerian utziz<sup>38,44,45</sup>.

Oro har, errebisatutako ikerketek, familia eta lagunek emakumezkoek jasandako eritasunaren ondoriozko mugak, bigarren mailako efektuak eta horren eraginez duten laguntza eta sostengu premia ulertzen ez dutela iradoki dute. Eta zehazki, emakumeen aburuz, hori (etapa honetan daukaten laguntza premiari buruzko ezjakintasuna) izan daiteke tratamendua bukatzerakoan aldentzearen arrazoiak, hori dela eta, gai honen inguruan familia kideak informatzearen garrantzia handia dela azpimarratzen dute<sup>38,44,45</sup>.

Bestalde, gaineztu den beste auzi bat familiarengatik kezkatuta egotearena da: arestian aipatutako Hubbeling eta lankideek burututako ikerketan ugaritu zen beldurra haien familia kideek haiek pairatu zuten gaixotasuna jasatearena izan zen<sup>50</sup>, gainera, beste ikerketetan emakumeak kezkatuta zeuden haien inguru kideek zituzten kezka edo beldurrengatik, eta horregatik Cheng eta kolaboratzaileek burututako ikerketan %18ak haiek ez ezik, beren inguru kideek sostengu profesionala behar izatekotan identifikatzea eta hornitzea eskatzen zuten<sup>42</sup>.

#### •Emozioak kudeatzeko beharra

Arlo emozionalean komunak diren auzi guztiak kudeatzeko emakumeek sostengu emozionalaren (osasun profesionalak behar emozionalak aitortuz eta haiekiko sentikorrek izanez)<sup>37,39,43,44</sup>, eta osasun mentaleko arreta espezializatuaren beharra dutela iradoki dute berrikusitako ikerketek<sup>40,44,50</sup> (*ikus 12.taula*).

| <b>12.Taula. Emozioak kudeatzeko beharra</b> |                            |                            |                   |   |
|--|----------------------------|----------------------------|-------------------|---|
| <b>Autoreak</b>                              | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b> | <b>Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b> |
| So et al <sup>39</sup>                       | Hong Kong (2014)           | Kuantitatibo transbertsala | 163               | SCNS-SF34   |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>               | Australia (2021)           | Kuantitatibo transbertsala | 130               | CaSUN   |
| Kim et al <sup>44</sup>                      | Hego korea (2020)          | Kualitatiboa               | 20                | Talde elkarrizketa                                      |
| Dsouza et al <sup>37</sup>                   | India (2018)               | Kualitatiboa               | 17                | Banakako elkarrizketak                                  |
| Vandendorpe et al <sup>40</sup>              | Frantzia (2021)            | Kuantitatibo transbertsala | 139               | Minbiziaren osteko beharren inguruko galdetegia         |
| Hubbeling et al <sup>50</sup>                | Mexiko (2018)              | Kualitatiboa               | 25                | Banakako elkarrizketak                                  |

Honen harira, bi ikerketetan aipatutako sostengua asetzeko osasun profesionalen aldetik behar zutena aipatu zuten emakumezkoek, bietan komunikazioarekin erlazionatutako aipamenak eginez. Lehenengoan, profesionalak haien hitzekin sostengua eta konfiantza transmititzeko gai izan behar zirela zioten<sup>44</sup>. Bigarrenean, aurrekoarekin bat, sostengu hori lortzeko osasun profesionalak hitz gozoezin eta lasaitasuna transmitituz hitz egitea beharrezkoa zela gaineratu zuten<sup>37</sup>.

Bestalde, emozio guzti hauek kudeatzeko, pazienteek espezializatutako profesionalen laguntza ere behar dutela adierazi dute ikerketetan. Zehatzago esanda, bi gauza behar dituzte arlo honetan: ohiko osasun profesionalak osasun mentaleko arazoak identifikatzeko gai izatea eta osasun mentaleko zerbitzuetara jotzeko sarbidea (kostu altuagatik, denbora faltagatik) eta gidapena (non bilatzeko ezjakintasunagatik) edukitzea<sup>40,44,50</sup>.

### **1.3 Beharrak arlo ekonomikoan**

Aurreko bizitzari ekitean emakumeak arlo ekonomikoan erronka askorekin aurkitzen dira. Oro har, berrikusi diren artikuluetan bi dira erronka horiei aurre egiteko emakumezkoek gainezten dituzten beharrak: *lanera bueltatzeko errekurtsu eta sostengu beharra* eta *finantziario beharra*.

#### **•Lanera bueltatzeko errekurtsu eta sostengu beharra**

Lanera berriro ekitearen eta erlazionaturiko beharren inguruan aritzen diren 3 artikuluko topatu dira (*ikusi 13.taula*).

| <b>13.Taula. Lanera bueltatzeko errekurtsu eta sostengu beharra</b> |                            |                            |                               |  |
|---|----------------------------|----------------------------|-------------------------------|--|
| <b>Autoreak</b>   | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b>             | <b>Eraitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b>                         |
| Napoles et al <sup>38</sup>   | Kalifornia (2017)          | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional | Talde eta banakako elkarrizketak   |
| Hubbeling et al <sup>50</sup>                                       | Mexiko (2018)              | Kualitatiboa               | 25                            | Banakako elkarrizketak   |
| Pauwels et al <sup>36</sup>   | Belgika (2013)             | Kuantitatibo transbertsala | 465                           | Bularreko minbiziaren ondoren emakumezkoek dituzten beharren inguruko galdetegia |

Alde batetik, emakumeek, minbiziaren ondoren dituzten bigarren mailako ondorio guztiengatik, haien *ohiko lanera bueltatzeko* gai izango diren galdetzen diote buruari. Horrela adierazi zuten Napoles eta kolaboratzaileek burututako ikerketako partaideek, batez ere lan fisikoa edo oroimenekoa zutenek. Halaber, ikerketa honetan ere parte hartu zuten osasun profesionalak emakumezkoek egindako aipamenak sostengatu zituzten, lanera bueltatzeko errekurtsu gehiagoren beharra zutela adieraziz, haien ustez arlo honetan laguntza beharrezkoa baitzen<sup>38</sup>.

Bestetik, emakumezkoek etapa honetan *lana aurkitzeko edo mantentzeko zailtasunak* izan ditzaketela iradoki dute ikerketek. Konkretuki, Hubbeling eta kolaboratzaileek burututakoan pazienteek bi arrazoi plazaratu zituzten lana aurkitzeko zailtasuna azaltzeko: jarraipenarekin zerikusia zuten bisita medikoengatik lanera faltatzeko beharra eta muga fisiko berriak. Hain zuzen, emakume askok, bisita medikoetara joateko ordu libreak eskatzerakoan zailtasunak aurkitu zituzten, eta, halaber, lehenago zituzten lanak alde batera utzi behar izan zituzten, horietako batzuk orain ez zuten abilezia eskatzen zuten jarduerekin erlazionatuta baitzeuden. Oro har, zenbait partaideek aurretik bularreko minbizi izategatik sentitu zuten diskriminazioa aipatu zuten lana bilatzerakoan. Hortaz, ikerketa hauetan emakumeek arlo honi aurre egiteko laguntzaren beharra agerian utzi zuten<sup>50</sup>.

Halaber, artikuluko kuantitatiboek ere arazo honi erlazionaturiko beharrak azalera dituzte, horren kasu Pauwels eta kolaboratzaileek burututakoa, laginaren %24,30ak lanera bueltatzean sostengu beharra zuela adierazi baitzuen<sup>36</sup>.

• **Finantziario beharra**

Eta honetan emakumezkoen finantziarioari eta erlazionatutako beharrei buruz aritzen diren 4 artikuluko topatu dira (*ikus 14. taula*).

| <b>14. Taula. Finantziario beharrak</b> |                            |                            |  |  |
|---|----------------------------|----------------------------|--|--|
| <b>Autoreak</b>                         | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b>                      | <b>Eraitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b> |
| Dsouza et al <sup>37</sup>              | India (2018)               | Kualitatiboa               | 17                                     | Banakako elkarrizketak                                   |
| Napoles et al <sup>38</sup>             | Kalifornia (2017)          | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional          | Talde eta banakako elkarrizketak                         |
| Cheng et al <sup>46</sup>               | Hong Kong (2018)           | Mistoa                     | 250 kuantitatiboan<br>60 kualitatiboan | Talde elkarrizketak                                      |
| Fang et al <sup>49</sup>                | Taiwan (2018)              | Kuantitatibo transbertsala | 192                                    | CaSUN  |

Lanarekin dituzten erronkengatik eta tratamendu fasean jasandako gastuengatik, emakumezkoek finantziario behar handiak izan ditzakete, zehazki, hori mahaigaineratu zuten arestian aipatutako Dsouza eta kolaboratzaileek burututako ikerketan partaideek, zeintzuek argiro dirua behar zutela adierazi zuten, bai jarraipenerako desplazamenduak edo proba medikoak ordaintzeko, bai eta bizi estilo osasuntsua eramateko<sup>37</sup>. Antzeko adierazpenak egin zituzten Napoles eta kolaboratzaileek burututako ikerketan emakumezkoek, diru beharrak kalitatezko jarraipen baterako oztopo bezala aurkitzen baitzituzten, haietako jarraipen bisitetarako bidaiatu behar izanak, osasuntsuago jan behar izanak... kostu handia suposatzen baitzuen<sup>38</sup>. Honen harira, Cheng eta lankideek burututako ikerketan partaideek ere finantziario mugak zituztela adierazi zuten, eta horrek behar ekonomikoak eragiten zizkiela<sup>46</sup>. Halaber, aurreko beharra Fang eta kolaboratzaileek burututako ikerketan ere azaleratu zen, asetugabeko 10 behar demandatuenen artean baitzegoen<sup>49</sup>.

**1.4 Beharrak arlo espiritualean**

Arlo espiritualean emakumezkoek dituzten beharren inguruan aritzen diren 5 artikuluko topatu dira (*ikus 15. taula*).

| <b>15. Taula. Beharrak arlo espiritualean</b> |                            |                            |                   |  |
|---|----------------------------|----------------------------|-------------------|--|
| <b>Autoreak</b>                               | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b> | <b>Eraitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b> |
| Kim et al <sup>44</sup>                       | Hego korea (2020)          | Kualitatiboa               | 20                | Talde elkarrizketa                                       |
| Capelan et al <sup>41</sup>                   | Ingalaterra (2017)         | Kuantitatibo transbertsala | 625               | HNA  |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>                | Australia (2021)           | Kuantitatibo transbertsala | 130               | CaSUN  |
| Dsouza et al <sup>37</sup>                    | India (2018)               | Kualitatiboa               | 17                | Banakako elkarrizketak                                   |
| Tisnado et al <sup>47</sup>                   | Kalifornia (2017)          | Kualitatiboa               | 74                | Talde elkarrizketak                                      |

Nahiz eta emakumeak zenbait ikerketetan arlo espiritualean izandako aldaketaren inguruan aritu<sup>37,44,47</sup>, aipatzekoa da, ikerketa kuantitatiboetan, behar espiritualak gutxien adierazitakoak izan direla. Esaterako, Capelan eta kolaboratzaileek burututako ikerketan, soilik %4ak adierazi zituen behar espiritualak<sup>41</sup>, edo eta Vuksanovic eta lankideek burututakoan gutxien aipatutako beharren artean ere egon zen (%7)<sup>43</sup>. Hortaz, nahiz eta aldaketa espiritualak handia izan, erlazionatutako beharrak txikiak direla egiaztatu dute aztertutako ikerketek. Honen atzean dagoen arrazoia fedea eta minbizia igaro ostean ematen den hazkuntza pertsonala izan liteke, horrela adierazi zuten Dsouza eta kolaboratzaileen ikerketan emakumezkoek, fedea garrantzi handia hartu baitzuen haietako, arlo espiritualean lasaitasuna eta osotasuna eskein<sup>37</sup>. Honekin ere bat datoz Tisnado eta lankideen ikerketan emakumeek egindako ekarpenak, minbizia pairatu izanak hazkuntza pertsonal eta indarra eman baitzien, helburu gehiago betetzeko eta bizitzaz benetan gozatzeko aukera zutela sentituz<sup>47</sup>.

### **1.5 Beharrak osasun arretaren arloan**

Errebitsatutako artikuluetan, osasun arretaren arloan, emakumeek behar ugari dituztela agerian utzi dute, eta zehazki, bi arlotan zentratu dira, *informazioan* eta *koordinazioan*.

#### **•Informazio beharrak**

Berrikusitako ikerketa desberdinek pazienteek informazioaren arloan behar handiak dituztela iradoki dute<sup>36-39,42-44,46-51</sup> (*ikus 16.taula*).

| <b>16.Taula. Informazio beharrak</b> |                            |                            |  |  |
|--------------------------------------|----------------------------|----------------------------|--|--|
| <b>Autoreak</b>                      | <b>Lurraldea eta urtea</b> | <b>Diseinua</b>            | <b>Lagina (n)</b>                            | <b>Emaitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa</b>                         |
| Cheng et al <sup>46</sup>            | Hong Kong (2018)           | Mistoa                     | 250<br>kuantitatiboan<br>60<br>kualitatiboan | Talde elkarrizketak  |
| Ellegaard et al <sup>48</sup>        | Dinamarka (2017)           | Kuantitatibo transbertsala | 155  | CaSUN  |
| So et al <sup>39</sup>               | Hong Kong (2014)           | Kuantitatibo transbertsala | 163  | SCNS-SF34  |
| Cheng et al <sup>42</sup>            | Singapur (2014)            | Kuantitatibo transbertsala | 150  | SCNS-SF34  |
| Pauwels et al <sup>36</sup>          | Belgika (2013)             | Kuantitatibo transbertsala | 465  | Bularreko minbiziaren ondoren emakumezkoek dituzten beharren inguruko galdetegia |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>       | Australia (2021)           | Kuantitatibo transbertsala | 130  | CaSUN  |
| Fang et al <sup>49</sup>             | Taiwan (2018)              | Kuantitatibo transbertsala | 192  | CaSUN  |
| Kim et al <sup>44</sup>              | Hego korea (2020)          | Kualitatiboa               | 20   | Talde elkarrizketa   |
| Hubbeling et al <sup>50</sup>        | Mexiko (2018)              | Kualitatiboa               | 25   | Banakako elkarrizketak   |
| Dsouza et al <sup>37</sup>           | India (2018)               | Kualitatiboa               | 17   | Banakako elkarrizketak   |
| Napoles et al <sup>38</sup>          | Kalifornia (2017)          | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional                | Talde eta banakako elkarrizketak   |
| Tisnado et al <sup>47</sup>          | Kalifornia (2017)          | Kualitatiboa               | 74   | Talde elkarrizketak  |
| Park et al <sup>51</sup>             | Hego Korea (2012)          | Kuantitatibo transbertsala | 1084   | SCNS   |

Oro har, Kim eta kolaboratzaileen ikerketan emakumeek zioten bezala, jaso zuten informazio gehiena diagnostiko eta tratamendu fasean zentratuta zegoen, tratamenduaren osteko kudeaketaren inguruko informazio gutxi edukiz. Hori dela eta, etapa honetan haien osasuna kudeatzeko informazioa eskatzen zuten, zehazki, bigarren mailako ondorioen eta jarraipenaren auzi garrantzitsuenen ingurukoa<sup>44</sup>. Hauekin bat etorri ziren Cheng eta kolaboratzaileek burututako ikerketako partaideak, bigarren mailako ondorioen maneiuaren eta osasunaren inguruko aspektu garrantzitsuenen informazioa nahi zutela baitzioten<sup>42</sup>. Gainera, ikerketa desberdinetan, haien lasaitasunerako minbizia kontrolpean zegoelaren buruzko informazioa jasotzea beharrezkoa zutela ere zioten emakumeek<sup>38,39,47,51</sup>.

Baina, informazio gehiegi izateak antsietatea ere sor dezake, horrela aditzera eman zuten pazienteek Cheng eta kolaboratzaileek edo eta Napoles eta kolaboratzaileek burututako ikerketetan<sup>38,46</sup>. Eta, hain zuzen, arrazoi berdinarengatik, artikulua desberdinetan, emakumeek informazio jarraia eta eguneratua izan ez ezik, zehatza, ulergarria eta pertsonalizatua ere behar dutela azpimarratzen dute<sup>38,43,44,46,49</sup>.

#### **•Koordinazio beharrak**

Osasun profesionalen arteko koordinazioaren eta erlazionatutako beharren inguruan aritzen diren 6 artikulua topatu dira (*ikus 17.taula*).

| 17.Taula. Beharrak koordinazioaren arloan |                      |                            |                               |  |
|---|----------------------|----------------------------|-------------------------------|--|
| Autoreak                                  | Lurraldea eta urtea  | Diseinua                   | Lagina (n)                    | Emitza hauek lortzeko erabilitako eskala/metodoa |
| Ellegaard et al <sup>48</sup>             | Dinamarka (2017)     | Kuantitatibo transbertsala | 155                           | CaSUN  |
| Vuksanovic et al <sup>43</sup>            | Australia (2021)     | Kuantitatibo transbertsala | 130                           | CaSUN  |
| Fang eta al <sup>49</sup>                 | Taiwan (2018)        | Kuantitatibo transbertsala | 192                           | CaSUN  |
| Tisnado et al <sup>47</sup>               | Kalifornia (2017)    | Kualitatiboa               | 74                            | Talde elkarrizketa                               |
| Napoles et al <sup>38</sup>               | Kalifornia (2017)    | Mistoa                     | 143 paziente<br>9 profesional | Talde eta banakako elkarrizketak                 |
| Ridner et al <sup>45</sup>                | Estatu Batuak (2016) | Kualitatiboa               | 21                            | Talde elkarrizketak                              |

Ikerketa desberdinetan emakumeek behin tratamendua bukatuta jasotzen duten arreta profesional ezberdinen artean koordinatua egotearen beharra azaleratu dute<sup>43,48,49</sup>.

Halaber, aipatzekoa da, arlo honetan emakumezko batzuek informazio eta aholku kontraesankorrak jaso zituztela adierazi zutela Tisnado eta kolaboratzaileek burututako ikerketan<sup>47</sup>. Adierazpen hauek Napoles eta kolaboratzaileek osasun profesionalak elkarrizketatzean lortu zituztenekin erlazionatu daitezke, izan ere, aurrekoek osasun profesionalak bularreko minbiziaren osteko jarraipenari buruz heztearen beharra adierazi zuten, emakumezkoen lasaitasunerako gomendio amankomunak eta koordinatuak ematearen garrantzia agerian utziz<sup>38</sup>. Profesionalak arlo honetan hezitzearen beharra Ridner eta lankideen ikerketan ere aipatu zen, emakumeak haien bigarren mailako ondorioei buruz ez zekiten profesionalekin aurkitzen baitziren, edo eta profesional desberdinek gomendio kontraesankorrak ematen baitzizkieten<sup>45</sup>.

## 2.Beharrak modulatu ditzaketen faktoreak

Berrikusitako zenbait ikerketek emakumeek etapa honetan dituzten beharrak modulatu ditzaketen zenbait faktore aurkitu dituzte, hots, *adina*, *biziraupen denbora* eta *gaixotasun ezaugarriak*.

- ❖ **Adina:** Zenbait ikerketetan gazteagoak diren emakumeek nagusiagoak direnek baino behar gehiago dituztela egiaztatu da, batez ere arlo psikosozial eta ekonomikoari dagokionez<sup>36,40,43,48</sup>.
- ❖ **Biziraupen denbora:** Ikertzaile batzuek tratamendua beranduago bukatu duten emakumeek behar gehiago azaleratzen dituztela frogatu dute<sup>46,48,51</sup>. Dena den, Vandendorpe eta kolaboratzaileek burututako ikerketan, ez zen aurrekoa bete, izan ere, hauek bi kohorte osatu zituzten: kohorte A (2017an tratamendua osatu zutenak) eta Kohorte B (2015an tratamendua osatu zutenak), eta, zehazki, nahiz eta tratamendua beranduago bukatu zutenek behar gehiago adierazi, aurrekoetan ez bezala, honetan ez zen desberdintasun esanguratsurik topatu<sup>40</sup>.
- ❖ **Gaixotasun ezaugarriak:** Vandendorpe eta kolaboratzaileek estadio aurreratuagoan diagnostikatuak izan ziren emakumeek lanari dagokionez behar gehiago zituztela ikusi zuten<sup>40</sup>. Halaber, jasotako tratamenduak fase honetan emakumeek dituzten beharretan eragin dezakeela egiaztatu dute bi ikerketek: Lehena Capelan eta kolaboratzaileena, zeinetan, terapia endokrinoa edo kimioterapia jaso zutenek beste tratamendu batzuk jaso zituztenek baino asetugabeko behar gehiago zituzten<sup>41</sup>, eta bigarrena Pauwels eta kolaboratzaileena, immunoterapia jaso zuten emakumeek sexualitate arloan behar gehiago aurkeztu baitzituzten<sup>36</sup>.



## ONDORIOAK, PRAKTIKARAKO INPLIKAZIOAK ETA MUGAK

### Ondorioak

Literaturaren berrikuspen honen emaitza eta eztabaidarekin emakumeek behin tratamendua bukatuta, biziraupen fase hedatu eta iraunkorrean, arlo desberdinetan beharrak dituztela ondorioztatzen da.

Arlo **fisikoari** dagokionez, minbiziaren eta tratamendu beraren bigarren mailako ondorio berantiarra etapa honetan ere presente daude, eta emakumeek eguneroko bizitzan mina, nekea, neuropatia periferikoa, linfedema, pisu igoera eta funtzionaltasun galerari aurre egin behar diote, alderdi hauek kudeatzeko behar duten laguntza, gidapena eta sostengua premiazkoa izanik.

Gainera, "normaltasun berriari" ekiteak erronka **psikosozial** ugari dakarzkie pazienteei; lehenago (tratamendu fasean) osasun sistemaren aldetik zeukaten jarraipen eta atentzioa asko murrizten da, eta horrek beldurra eta antsietatea eragiten die, bat-batean osasun kudeaketaren ardura haien gain erortzen baita. Hori dela eta, emakumeek etapa honetan trantsizio formalago baten beharra dute, baita jarraipen estuago baten beharra ere. Halaber, rol aldaketa handia ematen da etapa honetan, eta osasun sistemarekin gertatzen den bezala, tratamenduan zehar zuten sostengu soziofamiliarra ere asko txikiagotzen da. Honen atzean familiarren aldetik emakumeek dituzten bigarren mailako ondorioen eta laguntza premiaren inguruko ezjakintasuna dagoela iradoki dute emaitzek, hori dela eta inguru soziala gai honi buruz hezitzearen beharra handia dela ondorioztatu daiteke. Halaber, bularreko minbizia pairatu duten emakumeek tratamenduaren ostean gorputz irudian dituzten aldaketak handiak izan daitezke, horrek sexualitatean, eta ondorioz bikotekide harremanetan eraginez, arlo hauetan behar duten sostengu eta laguntza handia izanez. Dena den, sexualitatearen arloan azaleratzen dituzten beharrei dagokionez kulturak paper garrantzitsua izan dezakeela ondorioztatzen da.

Oro har, etapa honetan ematen diren aldaketa guztiek emozio asko mugiarazten dizkiete emakumeei, eta horregatik, osasun profesionalak hauekiko sentikorrak izatea eta komunikazioaren arloan sostengu emozionala eskaintzeko trebetasunak edukitzea eskatzen dute. Baina, ez hori bakarrik, izan ere, osasun mentaleko profesional espezializatuak ere eskuragarri behar dituzte, bai haientzako baita haien inguru kideentzako, eta horretan paper garrantzitsua egozten diete ohiko osasun profesionalei: osasun mental arazoaren detekzioa, deribazioa eta pazientearen gidapena.

Alabaina, nahiz eta minbizia pairatu izanak arlo **espiritualean** inpaktu handia izan, emakumeek alderdi honetan behar maila txikia azaleratzen dute, izan ere, esperientzia gizatiar honetatik espiritualki indartsuago atera daitezke, fedea garrantzia handiagoa hartuz eta bizitzaren ikuspegia aldatuz, honek nolabaiteko lasaitasuna eta asebetetzea eskaintzen dielarik.

Bestalde, emakumezkoek behin tratamendu fasea bukatuta dituzten behar **ekonomikoak** eta lotutako finantziario mugak bizitza osasuntsua eta kalitatezkoa eramateko oztopo direla ondorioztatzen da. Gainera, honi lana topatzeko edo eta lanarekin jarraitzeko zailtasunak gehitu behar zaizkio, emakumeek lan eremuan muga fisiko berriei eta minbizia pairatu izanagatik jasaten duten diskriminazioari aurre egin behar baitiote, laguntzaren, lanera bueltatzeko errekurtso gehiagoren eta sostengu ekonomiko sendoaren beharra agerian utziz.

Guzti honi heltzeko, pazienteek eguneroko jarraipen prozesuan eskaintzen zaien **arretaren** inguruan ere behar handiak dituzte. Emakumeek informazio eguneratua, pertsonalizatua, ulergarria, zehatza eta jarraia behar dute, eta, era berean, osasun profesionalen aldetik etengabeko koordinazioa behar dute.

Gauzak horrela, bukatzeko, behar guzti hauek zenbait faktorek modulatu ditzaketela ondorioztatu daiteke, hots, adinak, biziraupen denborak eta gaixotasunarekin zerikusia duten ezaugarriak.

### **Praktikarako inplikazioak**

Aurkikuntza hauek guztiek osasun profesionalek eguneroko praktikan etapa honi behar duen garrantzia eman behar diotela agerian uzten dute. Hain zuzen ere, trantsizio momentu honetan, lehen mailako arretaren eta arreta espezializatuaren arteko parte-hartzea eta informazio trukea sustatu behar da, pazienteek eskatzen duten koordinazioa hobeto artikulatzeko, eta jarraipenean somatzen duten bat-bateko hutsunea ekiditeko<sup>52</sup>.

Era berean, jarraipen honetan zehar, osasun profesionalek bigarren mailako ondorioen kudeaketan sostengua, informazio eta heziketa zehatza, jarraia, ulergarria eta pertsonalizatua ematea funtsezkoa da, baina, ez bakarrik emakumezkoen, baita haien inguru kideei ere<sup>14,52</sup>.

Gainera, ohiko osasun profesionalek paper garrantzitsua daukate etapa honetan gaineztu daitezkeen osasun mentaleko arazoak detektatzeko, eta profesional espezializatuera bideratzeko. Halaber, emakumezkoekin kontaktuan dauden profesional guztiak, sostengu emozionala emateko gai izan behar dira, horretarako komunikatzeko gaitasunak garatu behar dituztelarik<sup>14,53</sup>.

Baina, garrantzitsua da guzti hau era hoberenean artatzeko osasun profesionalak gai honen inguruan hezte, izan ere, arlo honetan eman daitezkeen arazoak ezagutu behar dituzte, hori gomendio eraginkorrak eta amankomunak ematea posible egingo duen era bakarra izango baita<sup>54</sup>.

Honengatik guztiagatik, funtsezkoa da, aipatutako neurriez gain, osasun profesionalek, eta bereziki erizainek, gai honen inguruan ikertzen jarraitzea, familia kideen pertzepzioak ere barneratuz, eta beharrak modulatu ditzaketen faktoreen inguruko errebisio sakonak garatuz, biziraupen arreta-programa berriak eta pazienteen beharretan oinarritutakoak sortzeko<sup>52,54</sup>.

### **Mugak**

Lan honek zenbait muga ere izan ditu; hasteko nabarmentzekoa da ikerketak munduko lurralde desberdinetan burutuak izan direla, eta nahiz eta heterogeneotasun honek kultura ezberdineko emakumeek dituzten beharrak ikertzea ahalbidetu duen, emaitzak orokortzea zaildu dezake. Halaber, erabilitako ikerketa kuantitatiboen laginketa-estrategia ez-probabilistikoa izan da, kalkulu muestralik egin gabe, hortaz, honek ikerketen emaitzak biztanleriari orokortzea zailtzen du.

Gainera, aukeratutako ikerketek, adin oso desberdineko, edozein tratamendu jaso duten, eta fase hedatu eta iraunkorrean egonda tratamendua bukatzetik denbora desberdina igaro duten emakumeak barneratu dituzte, hortaz, guzti horiek beharrak modulatu ditzaketen faktoreak izanda, lortutako emaitzak orokortzea eta haien artean konparatzea zaila izan daiteke.

Azkenik aipatzekoa da lortutako artikuluko gehienak transbertsalak direla, hortaz, ezin izan da pazienteek azaleratzen dituzten beharrak denborarekin nola aldatzen diren aztertu, honek ikerketa longitudinal gehiagoren beharra agerian uzten duelarik.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. Cáncer de mama - Sociedad española de oncología médica [Internet]. [Eguneratzea 2020ko otsailaren 9a; sarrera 2021eko urriaren 20a]. Eskuragarri: <https://seom.org/info-sobre-el-cancer/cancer-de-mama?start=1>
2. Cáncer de mama - Organización Mundial de la Salud [Internet]. [Eguneratzea 2021eko martxoaren 26a; sarrera 2021eko urriaren 20a]. Eskuragarri: <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/breast-cancer>
3. ¿Qué es el cáncer de mama? – Centros para el Control y la Prevención de Enfermedades [Internet]. [Eguneratzea 2021eko irailaren 22a; sarrera 2021eko urriaren 20a]. Eskuragarri: [https://www.cdc.gov/spanish/cancer/breast/basic\\_info/what-is-breast-cancer.htm](https://www.cdc.gov/spanish/cancer/breast/basic_info/what-is-breast-cancer.htm)
4. The Global Cancer Observatory. Cancer fact sheet. World Health Organ [Internet]. 2021 [Sarrera 2021eko urriaren 24 a];876:1–2. Eskuragarri: <https://gco.iarc.fr/today/data/factsheets/populations/900-world-fact-sheets.pdf>
